Esan behar izan nuen!

Nola gogoratzen dituzu ikasle-garaiak? Mikelek, gazte transexual batek, bere bizipenak azalduko ditu *Ur Handitan* saioan. Haren testigantzatik abiatuta, gure ikasle-garaiak gogoratuko ditugu.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Esan txikitako ikaskideak gogoratzen dituzun.**
- **Elkarrizketa ikusi, eta galderen erantzun zuzenak aukeratu.**
- **Ikasi noiz eta nola erabiltzen den *BEHAR IZAN*.**
- **Azaldu zure ikasle-garaian zer bizi, esan edo egin behar izan zenuen.**



Argia

Ikusi aurretik

TALDEAN

1. Ikaskideak

Aurrerago zure ikasle-garaiko kontuei buruz arituko zara; baina, hasi aurretik, binaka, erantzun galdera hauei.

- Gogoratzen dituzu ikastolako, eskolako edo institutuko ikaskide guztiak? Eta haien izenak?

- Gogoan al duzu "ezberdina" zen ikaskideren bat? Zergatik iruditzen zitzaizun "ezberdina"? Nola moldatzen zinen harekin?

iStock



Esaldi hauek erabil ditzakezu:

- *Gure belaunaldian asko izan ginen, ez ditut guztien aurpegiak gogoratzen!*
- *Gu oso gutxi ginen gelan; bai, ikaskide guztiak gogoratzen ditut.*
- *Ni gehienekin ondo moldatzen nintzen.*

Ikusi bitartean

TALDEAN

2. Zer dio Mikelek?

Ikusi *Ur Handitan* saioan Mikele gazte transexualari egindako elkarrizketa, eta erantzun galderei. Ondoren, binaka, komentatu zer iruditu zaizuen Mikeleren esperientzia.

etb

Mikele, ez Mikel

1. Erraza izan zitzaion bere transexualitatea gizarteratzea?

a) Bai, nahiko erraza izan zen.
b) Ez, oso zaila izan zen.
c) Ez zen traumatikoa izan, baina oso erraza ere ez.

2. Ikastetxean bullyngik egin zioten?

a) Ez, baina noizbait irainen bat esan zioten.
b) Ez, ez zioten inoiz ezer txarrik esan.
c) Bai, baina ez zitzaion horrenbesterako iruditu.

3. Irakasleak prest egon ziren egoerari aurre egiteko?

a) Ez, ez zeuden prestatuta.
b) Bai, borondate onez jokatu zuten, baina ez zuten ondo bideratu.
c) Bai, gurasoekin hitz egin zuten, eta oso ondo bideratu zuten.

4. Zer azaldu behar izan zitzaien ikaskideei?

a) Ezer berezirik ez: errespetua denok merezi dugula.
b) Badirela zakila duten neskak eta badirela alua duten mutilak.
c) Sexualitateari buruzko azalpenak eman zizkieten, Mikele hobeto ulertzeko.

5. Zer moduz hartu zuten ikaskideek Mikele (eta ez Mikel)?

a) Ondo iruditu zitzaien, errespetu handia izan zuten.
b) Galdera asko egin zioten, normala denez; hamaika-hamabi urte zituzten.
c) Denetarik egon zen: umeak eta umeak daude...

6. Noiz hasi zen Mikele nesken aldagelak erabiltzen?

a) Agintariek baimena eman zutenean.
b) Zuzendariak baimen berezia eman zionean.
c) Neska zela esan zuenean eta gurasoek irakaslearekin hitz egin zutenean.

7. Nola hartu zuten aldagelen inguruko erabakia ikaskideek eta eskolak?

a) Hasieran, arazoak egon ziren; baina laster ohitu ziren denak.
b) Hasieran, eskolak arazoak izan zituen baimenak lortzeko; bestela, ondo.
c) Hasieratik, neska-lagunek esan zioten ez zegoela arazorik.

8. Eskolatik kanpo dagonean, zer egitea gustatzen zaio Mikeleri?

a) Etxean geratzea gustatzen zaio.
b) Lagunekin egotea gustatzen zaio.
c) Kirola egitea gustatzen zaio.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Ikusi ondoren

TALDEAN

3. Erreparatu esaldi hauei

Erreparatu bideo-pasartetik atera ditugun esaldi hauei (gehi asmatu ditugunei), eta, binaka, erantzun galderei:

1. Zein da *a* eta *b* esaldien arteko aldea? Idatzi zuen hipotesiak:

a) Zer azaldu **behar zitzaien** ikaskideei?
b) Zer azaldu **behar izan zitzaien** ikaskideei?

a) Esan **behar nuen.**
b) Esan **behar izan nuen.**

a) Baimena eskatu **behar zenuen?**
b) Baimena eskatu **behar izan zenuen?**

a) Ez nuen baimenik **eskatu behar.**
b) Ez nuen baimenik **eskatu behar izan.**



2. Ondoko esaldiak zuzenak dira? Idatzi zuen hipotesiak:

a) Aldagelan sartu **behar izan nintzen**.
b) Aldagelan sartu **behar izan nuen**.

a) Etxera joan **behar izan nintzen**.
b) Etxera joan **behar izan nuen**.

Erantzun zuzenak eta azalpenak hurrengo orrialdean daude.



GRAMATIKA- AZALPENAK

BEHAR IZAN

1. Zein da esaldien arteko aldea?

- ***a*** motako esaldietan (behar) esanahia hau da:
  = Beharra zegoen, baina **ez dakigu zer geratu zen**; ekintza burutu zen?
- ***b*** motako esaldietan (behar izan) esanahia hau da:
  = Beharra zegoen, eta **ekintza amaituta dago**; badakigu zer geratu zen.

Ikusi aldea, esaldiz esaldi:

a) *Ikaskideei azaldu **behar zitzaien**.*
= Beharra zegoen. Baina, azaldu zitzaien? Ez dakigu.
b) *Ikaskideei azaldu **behar izan zitzaien**.*
= Beharra zegoen, eta azaldu egin zitzaien. Badakigu. Ekintza amaituta dago.

a) *Esan **behar nuen**.*
= Behar zuen. Baina, esan zuen? Ez dakigu.
b) *Esan **behar izan nuen**.*
= Beharra zuen, eta esan egin zuen. Badakigu. Ekintza amaituta dago.

a) *Baimena eskatu **behar zenuen**.*
= Behar zuen. Baina, eskatu zuen? Ez dakigu.
b) *Baimena eskatu **behar izan zenuen**.*
= Behar zuen, eta eskatu egin zuen. Badakigu. Ekintza amaituta dago.

a) ***Ez nuen** baimenik **eskatu behar**.*
= Ez zuen behar. Baina, eskatu zuen? Ez dakigu.
b) ***Ez nuen** baimenik **eskatu behar izan**.*
= Ez zuen behar, eta ez zuen eskatu. Badakigu. Ekintza amaituta dago.

2. Ondoko esaldiak zuzenak dira?

- Bai, baina ***du*** **laguntzailea gomendatzen da**, arau orokor modura, euskara baturako: *joan behar du, erosi behar du.*
- **Bi salbuespen** onartzen dira:
  - *Nori* kasuarekin, *zaio* gisa jokatzen da: esan behar *zaio*...
  - Zenbait euskalkitan, *da* laguntzailea hartzen du: *joan behar naiz*
- **Zentzu inpertsonala duenean**, *da* erabiltzen da: *Kontuz ibili behar da gizon horrekin. Hara joan behar da. Liburuak saldu behar dira.*
- **Laburbilduta**:
  a) *Aldagelan sartu behar izan **nintzen** / Etxera joan behar izan **nintzen**.*
  Ez daude gaizki, baina euskara batuan Nor-Nork hobesten da.
  b) *Aldagelan sartu behar izan **nuen** / Etxera joan behar izan **nuen**.*
  Horrela esatea gomendatzen da.

TALDEAN

4. Ikasle-garaian, zer egin behar izan zenuen?

Mikelek 11-12 urterekin egin behar izan zuen zerbait kontatu dio kazetariari. Orain, zure txanda da. Kontatu ikaskideei zure ikasle-garaiko bizipenak eta garai hartan egin behar izan zenituen pare bat kontu, gutxienez.

Gidoi posible bat:



- Non ikasi zenuen txikitan?
- Nolako harremana zenuen ikaskideekin? Eta irakasleekin?
- Pozik joaten zinen eskolara?
- Gogoan duzu zuk izandako liskarren bat?
- Eta egun zoriontsu edo bereziren bat?
- Gogoan duzu ikaskide bitxiren bat? Akaso, “ezberdina”? Nolako harremana zenuen harekin?
- Neska-mutilen arteko harremanak, aldagelak, lotsak... zer gogoratzen duzu horietaz?
- Gogoratzen duzu institutu-garaiko pasadizoren bat?

- **Testuinguru horretan, zer esan, eskatu, ukatu edo egin behar izan zenuen? Eta/edo, nora joan behar izan zenuen?**

Pentsatu zer esango duzun, eta idatzi gako-hitzak, ideiak, esaldiak... baina kontuan izan ahoz kontatzeko direla.

BAKARKA

Jarduera osagarria

5. Mikele hobeto ezagutu nahi?

Hau etxean egin dezakezu. Euskaltegian *Ur Handitan* saioko pasarte bat ikusi dugu, baina, Mikele hobeto ezagutu nahi baduzu, hona hemen zenbait aukera.

Ur handitan (saio osoa):
Uharten izan da Xabier Madariaga kazetaria Mikele Grande Oloriz (Uharte, 2000) nerabe transexualarekin, haren esperientzia ezagutzen. Mikelek azalduko digu hormona-tratamendua zertan datzan.

Oharra: azpidatziekin ikus dezakezu.

etb

Mikele Ur Handitan saioan (osoa)



Argia (Mikele)

Hamaika Telebistan elkarrizketa:
https://www.youtube.com/watch?v=HkLSB5-oDJA
Euskalerria Irratiko elkarrizketa:
https://www.youtube.com/watch?v=oaT25LueX_4
Argiako erreportajea:
https://www.argia.eus/argia-astekaria/2656/mikele-grande-gazte-transexual-zoriontsua
Sustatun elkarrizketa:
https://sustatu.eus/1446201543120

Mikeleri buruzko dokumentala:
https://www.filmin.es/corto/mikele
Trailerra: https://www.youtube.com/watch?v=KmBpIP0icMU

ERANTZUNAK

2. Zer dio Mikelek?
1- a; 2- b; 3- c; 4- b; 5- a; 6- c; 7- c; 8- b.

3. Erreparatu esaldi hauei
Erantzunak eta azalpenak 4. orrialdean daude.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Zure transexualitatea gizarteratzea. Transexualitatea publiko egitea.
Iraindu. Iseka, burla egin.
Alua daukaten mutilak. Genero-sistema binarioan, emakumeen sexu-organoa.
Zakila daukaten neskak. Genero-sistema binarioan, gizonen sexu-organoa.

TRANSKRIPZIOA

Xabier Madariaga: Zure transexualitatea gizarteratzea erraza izan zen? Klasean, ikaskideekin...
Mikele: Bai, nahiko erraza; Bai herrian, klasean, institutuan... Gainera, nire lagunekin edo, bai, jende askorekin, nahiko erraza da. Gaur egun, zorionez, jendea (jendeak) hau ondo ulertzen du edo interesa (interes) handia dauka, eta, orduan, ba, errazagoa da; baina, baita ere, ba, jendea eta jendea dago.
Xabier Madariaga: Eta, jende horren artean, klasekideak (eskolakideak) dituzu.
Mikele: Bai.
Xabier Madariaga: Ez dakit bullyingik-edo egin dizuten.
Mikele: Ez, inoiz (inoiz ez). Inoiz ez didate, gainera, inoiz iraindu edo ezer esan.
Xabier Madariaga: Eta klasean, irakasleekin? Irakasleak, adibidez, prest ikusi dituzu honen moduko kasu bati aurre egiteko?
Mikele: Nire institutuan bai; bai, oso prest, gainera. Eskolako irakasleak (irakasleek) nire gurasoekin hitz egin zuten, ba, gai hau ondo tratatzeko eta klasekideei irakasteko; eta oso ondo, bai.
Xabier Madariaga: Eta zer azaldu behar izan zitzaien klasekideei?
Mikele: Ba, gaur egun, alua daukaten mutilak existitzen direla, eta zakila daukaten neskak. Eta oso sinplea dela, oso... ulertzeko, ba, nahiko erraz.
Xabier Madariaga: Nola ulertu zuten? Ez dakit: galderaren bat egin zizuten?
Mikele: Ez.
Xabier Madariaga: Zure sentimenduei buruzko galderarik ez zizuten egin?
Mikele: Ez, oso... Osea (hau da), errespetu handiarekin tratatu zuten. Eta nik esan nuenean, hau da, nik klasean, azkenean esan nuen: “Ba, ni Mikele naiz, ez Mikel; orduan, Mikele bezala (~~bezala~~) deitu”, eta denoi (denei) ondo iruditu zitzaien, eta oso errespetu handia izan zuten.
Xabier Madariaga: Aldagelak... ikastolan edo eskolan aldagelak erabiltzean, noiz hasi zinen nesken aldagelak eskatzen?
Mikele: Ba, hasieran, nik hau esan nuenean, klasean eta nire gurasoek irakasleekin hitz egin zutenean; gainera, bueno, nire eskolako neska-lagunek esan zidaten: “Ba, gurekin etorri ahal zara, ez dago problemarik”. Orduan, hasieratik ni nesken aldageletan sartu nintzen, eta oso eroso guztia.
Xabier Madariaga: Baina baimenen bat eskatu behar izan zenuen eskolan, edo...
Mikele: Ez, ez. Ni neska bat nintzen, eta beraiek (haiek) ulertzen zuten; primeran, gainera. Eta esan zuten: “Ba, neskak neskekin”.
Xabier Madariaga: Eta hori zenbat urterekin izan zen?
Mikele: Hamaika-hamabi urterekin.
Xabier Madariaga: Ordura arte, mutilen aldagelan sartzen zinen?
Mikele: Bai.
Xabier Madariaga: Mutilen komunetan?
Mikele: Bai.
Xabier Madariaga: Eta eroso zeunden, ala ez?
Mikele: Ba, ez. Hau da, nik (ni) eroso nengoen, baita (~~baita~~) nire lagunak ziren (baita ere) eta beraiekin egotea, baina, baina igual pixkat (pixka bat) deserosoa, bai.
Xabier Madariaga: Eskolatik kanpo zaudenean, zer gustatzen zaizu egitea?
Mikele: Ba, nire lagunekin gelditzea, txokora joan edo planen bat egitea...